



15/97 Legeak, Kudeaketa forma berriei buruzkoak, Osasun Publikoaren atea ireki zien irabazi asmoa duten enpresei, osasun zentroak “zuzenbidean den edozein erakundek” kudeatzea ahalbidetuz. Une horretatik aurrera, gobernu autonomikoek osasun-zentro publikoak kudeatzen dituzten enpresa pribatuen onurak handitzeko erabili dute gure zergen parte gero eta handiago bat.

Hala eta guztiz ere, indarrezko ebaste hau justifikatzeko behin eta berriro erabilitako argumentua zera da: “zerbitzuaren pribatizazioa merkeagoa da, enpresa pribatua publikoa baino eraginkorragoa delako.” Haatik, inoiz ez da baieztapen hau ziurtatzen duten egiaztatutako txostenik aurkeztu; inoiz ez da zerbitzuen kalitateaz hitz egin; inoiz ez dira aintzat hartu osasun eredu honen aldaketarako ez langileak ez erabiltzaileak. Ezin konta ahala lan daude erakusten dutenak Espainiako Osasun Publikoa munduko onenetakoa eta erakingorrenetakoa dela eta osasun-zerbitzuen kudeaketa pribatua garestiagoa dela. Adibide erreal asko daude, bai Espainian bai Europan, erakusten dutenak kudeaketa pribatuarekin zerbitzuen kalitatea jaisten dela enpresa hauei ordaintzeko erabiltzen den diru publikoa handitzen den heinean.

Gainera, hierarkien eta enpresa onuradunaren arteko irregulartasunak eta konplizitatea (zentro edo osasun-eremu ezberdinen arteko justifikaziorik gabeko gaixoen eratorpena, zerbitzu publiko eraginkorren itxiera zerbitzua enpresa pribatuei esleitzeko; ospitale edo osasun-eremu ezberdinetako aurrekontu-sail opakoen eskandaluak) etengabeak izan dira denboran eta gizarte ezinegon handia sortu dute.

Une honetan, pribatizazio erasoaldi handiak OSASUNaren babeserako eskubidea arriskuan jartzen ari da: hainbat ospitale pribatizatu nahi dira herri ezberdinetan, etengabeko arreta puntuak itxi dira, milaka herritar gaueko larrialdi-zerbitzurik gabe utziz eta laborategiak zentralizatu nahi dira. Sukalde-, garbitegi- eta garbiketa-zerbitzuak pribatizatzen ari dira hainbat ospitaletan. Horretaz gain, errezetako 1€ko tasa ezarri da hainbat autonomiatan (une honetan Auzitegi Konstituzionalak gelditutako neurria) eta berrordainketa ezarri da estatu osoan.

Osasun-laguntzaren kalitatea ere mehatxupean dago, egon diren milaka kaleratzeengatik, pertsonal ez-sanitarioen 26 kategoria desagerrarazteko intentzioarengatik eta lan zabor-kontratuen gehitzeagatik. Osasun publikoaren desegitea osasun publikoa baliabidez umezurtz uzten duten langile murrizketarekin hasten da. Osasun-prestazioen murrizketa bortitza, osasun-eredua aldatzeko saiakuntzak, landa eremuei egiten zaien utzikeria, eta gure osasun-sistemaren osasun-prestazioetara iristeko unibertsaltasun eta berdintasun printzipioak galtzeak (baliabide gutxien dituzten biztanleen kopuru handi bati estaldurarik gabe uzten dituelarik) herritarrak eta langileak borrokarako prestatzea ekarri du.

Osasuna eskubide bat da eta ez dugu onartuko berarekin negoziatzea herritarrak garen eta Osasungintzako langileak garen neurrian. Orain artean bezala eutsi egingo dugu eta berriro ere gure erabateko gaitzespena adierazten dugu autonomia guztietan eta bereziki Tolosaldean egiten ari diren pribatizazio planen aurka, azken honetan kudeaketa publikoko eskualdeko ospitale baten eta erabateko espezialitate-anbulatorio baten alde borrokatzen dugularik.

**GUZTIOK BATERA LORTUKO DUGU!
OSASUN PUBLIKOA EZ DA SALTZEN, DEFENDATZEN BAIZIK!**

<http://osasunpublikoa.blogspot.com>